



Elizabeth RUIZ | AFP



IKUSMIRA

EKAITZAREN MEHATXUARI ZUTIK EUTSI DION EMAKUMEA

Baliteke emakumea itsasertzera hurbildu izana kopet-
lun sumatu duelako zerua. Agian bertaratu da zerua
kontsolatzeko asmoz, edo, bestela, berarekin batera
negar egitera, negar egitea ez baita koldarren gauza.
Emakumea itsasoaren pareraino hurbildu da bere ba-
rrenak lasaitzeko. Zutik dirau emakumeak, nahiago

duelako begietara begiratu datorrenari: alerta laranja Mexikon urakan arriskuagatik. Barkuaren
uberak ez du marraztuko olatuek ondoren ezabatuko dutena ez besterik, eta berdin ezabatuko
dira emakumearen oin arrastoak hondarretan ere. Baina ekaitza ez da hasi oraindik, eta artean
badago tarterik itsasoa hazten eta zerua jaisten ikusteko. Dotore jantzi da zeru ilunari begi ar-
giekin begiratzeko, etxerako itzulera mela-mela egiteko arriskua hartuta. Ekaitzak emakumea
harrapatuko du edo emakumeak ekaitza? Talaia horretatik, lasaigarria suertatzen da eguneroko
arrisku sotila den hori: «Kontuz! Ontziratze eta lehorreratze gunea».

Maddi TXINTXURRETA